

## MADALENA JAIK ZAHARREN EGOITZAN



Meza Nagusia, atzo, Zaharren Egoitzan.



Urteroko Bazkari Berezia izan zuten atzo, Madalena egunean.

# Meza, Bazkaria eta Bingo Berezia atzo Sandiusterrin, festetako egun nagusian

■ Gaur San Joan festetako diapositibak izango dituzte urtero bezala ■ Bihar Toka eta Domino Txapelketak, jai bukaera emateko.

ZAHARREN Egoitzan Madalena festak ari dira ospatzen astelehenetik ostegunera. Gaur diapositiba emanaldia izango dute, Egoitzan San Joanetan egin zuten festari buruzkoa. Zaharren Egoitzako ohitura da festetan, aurreko jaiari buruzko diapositibak botatzea, eta asko egoten dira zai ekitaldi honetarako. Diapositiba

emanaldia arratsaldeko 17:30-etan izango da.

### Atzo Madalena eguna

Atzo izan zen Madalena eguna, festetako egun nagusia. Goizean goizetik Txistularien Diana izan zuten, eta ondoren Meza Nagusia Egoitzan bertan. Eguerdian Bazkari Berezia zuten eta beti bezala espezial

egon ziren bazkal-orduan eta bazkal-ostean. Arratsaldean Bingo Bereziak bildu zituen Egoitzakoak, eta emozioz betetako denbora pasa egin zuten. Tartean parre algarra asko izan zen eta amorrazioz gelditutakoren bat ere bai, baina, dena festa giro onean joan zen, beti bezala. Aurten ere Bingo Bereziak bildu du jende gehiena.

### Toka eta Domino bihar

Urteroko ohitura da, baita ere, Toka, Domino eta Igel Txapelketak egitea. Astelehenean egin zuten Igel Txapelketa, eta bihar izango dira Toka eta Dominoa. Toka goizean dute, 10:30etan eta Dominoa arratsaldean 17:30etan. Horrekin emango diote bukaera aurtenko Madalena festei.

### Hurrengoa Aste Nagusian

Zaharren Egoitzako jai ofizialak Madalenak dira, baina, beste festa asko ere ospatzen dituzte. Hurrengoa Donostiako Aste Nagusian izango dute, suak ikustera joango baitira, Zubietako Dana-Ona jatetxean bazkaldu eta gero. Irailean estropadetara dijoaz, eta abenduan Gabonak ospatzen dituzte. □

# Gaur hasiko dira Santioak Astigarragan

■ Txupinazoa 19:00etan botako dute Udaletxeko balkoitik eta igandera arteko festa izango da.

SANTIO festak gaur hasiko dira Astigarragan eta igandera arte izango da non ibili eta gozatua. Txupinazoa bota eta pregoia irakurri Oiana Blanco Ergobiko judokak egingo du arratsaldean. Blancok festak aprobetxatzeko esango die herritarrei, txapelketak medio,

berak parrandarik egin ezin badu ere. Hasiera ofiziala hori izango dute Santioek, baina, umeek ere beren txupinazoa egiteko dute goizaldean. Xabier Herrero Leire Zubiarrain eta Ainhoa Zubiarrainek botako dute suziria eta pregoia irakurri.

### Gaur umeen eguna

Gaur umeek gozatzeko moduko egitaraua dago Santioetan. Txupinazo txikiaren ondoren, haurrentzako bazkaria dago Foru Plazan eta arratsaldean Arturrello Di Popolo pailazoaren *Bizikleta* emanaldia. Ondorenean txokolatada

dago plazan bertan eta txupinazoarekin batean buruhandi eta erraldoiak irtengo dira txistulariekin batean. Trakets taldearen gaueko dantzaldia ere 20:00etan jarri dute, beranduegi gabe, umeek eta gazteenek joateko aukera izan dezaten.

### Herri krossa eta auzoen artean herri kirolak

Aurtengo festetan ere badira nobedadeak eta kirolei dago-kienez bi badira behintzak: larunbatean, lehenengo kross herrikoa egingo da eta beranduago herriko auzoen arteko herri kirol desafioa. □

### IKASTAROA LANGABETUENTZAT LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

("Técnico Medio" titulua)  
-INEMek subentzionatua-

300 ordu

Hasiera: Irailaren 9an  
Bukaera: Abenduaren 4ean  
Ordutegia: 14:00 -19:30  
astelehenetik ostiraletara



urolalde

### UROLALDE AKADEMIA

Oindi kalea 1 - HERNANI - 943 33 37 11 - 943 33 42 27



ITXASPE

Arrandegia

Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Móbil: 653 74 10 97  
20120 Hernani


BIKAIN  
OKINDEGI TX GOZOTEGIA



Eguneroko ogia  
beti bikain



Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089  
Elkano 12 - Tel.: 943 553142  
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487  
20120 Hernani



Getaria Zarautz proban umeak iaz, irteera emateko zai.

## Igeriketako lau proba itsasoan uztaila, abuztua eta irailean

■ Getaria Zarautz Uztailaren 25ean da; Deba-Mutriku uztailearen 27an; Donostiako Paseo Berria proba abuztuaren 15ean eta Kontxako badia irailearen 21ean.

FEDERATU gabeentzako lau igeriketa probatan izen ematea zabalik dago. Ostiralean Getaria-Zarautz proba famatua jokatuko da eta Hernaniko igerilariak bertan izango dira aurturaren erdian, igeriketa taldeak joandakoak eta baita beren kasa animatutako batzuk ere. Igeriketa taldeak 20 bat igerilari izena eman dute aurturaren erdian Jon Murua entrenatzaileak Kronikari jakinarazi dionez. 13 urtetik 20 urtera arteko igerilariak apuntatu dira igeriketa taldeak eta bi proba desberdin izango dituzte. Gazteenek 600 metroan egin beharko dute igeri, Getariako portuan bertan. Helduek, berriz, 2.500 metroko proba dute egin beharra, hasi Getariako Portutik eta Zarautzeraino.

Proba honekin bukatuko dute denboraldia Hernaniko igerilariak eta Kontxako badiako proba arte deskantsua hartuko dute. Izen ematea Gipuzkoako igeriketa federazioan (943 469536) edo Zarautzko kirol elkartearen (943 83 44 89) egin behar da.

### Beste hiru proba

Uztailaren 27an, berriz, Deba-Mutriku proba da, 3000 metrokoa. Izen ematea Gipuzkoako igeriketa federazioan edo Elgoibarko kiroldegian egin behar da (943 74 44 15).


Abuztuaren 15ean, Donostiako paseo berrian dago igeriketa proba, Urumea ibaia itsasoratzen den horretan. Probak 2.950 metro ditu. Izen

ematea Gipuzkoako igeriketa federazioan edo CD Fortunan (943 39 59 95) egin behar da.

Irailearen 21ean Donostiako badiako proba da. Probak 2.222 metro ditu eta Donostiako Nautikotik aterako dira igerilariak. Hernaniko igeriketa taldeak proba honekin ematen dio denboraldiari hasiera. Izen ematea Gipuzkoako igeriketa federazioan edo CN Eason (943 21 31 66) egin behar da.

Proba hauetan jende asko atera ohi da, igerilaria dena edo igeri egiteko afizioa duena. Proba disputatzera, ordea, kanpotik etortzen da jendea, hemen ez baitago distantzia hain luzeetan konpetitzeko ohitura haundiegirik. □

## BERTSOLARITZA



Zelaia eta Sorozabal, bertsoketa zorrotzeko bi bertsolari.

## Iñaki Zelaia, Joxe Agirre eta Jokin Sorozabal igandean Arrigoainen

■ Bazkari txartelak Aralar eta Kitton.

BERTSO bazkaria dago datorren igandean Arrigoain jatean (harrobian). Iñaki Zelaia hernaniarra, Jokin Sorozabal andoainarra, eta Joxe Agirre azpeitiarra ariko dira bertsotan: hiru generazio desberdinetako bertsokerak, nor baino nor. Bazkaritarako txartelak salgai daude dagoeneko Aralar eta Kitto tabernetan, 15 eurotan. Morkaiko taldeak urtero antolatzen du San Inazio egunean Santa Barbara tontorrean festa, eta horren bueltan beste ekitaldiren bat ere bai aurreko egunetan. Aurtengoan bertso afaria dago.

### San Inaziotako festa

Uztailaren 31n, San Inazio eguna, Santa Barbara tontorrean festa egingo da. Diana 10:00etan joko dute Hernanin eta 12:00etan Indiori omenaldia egingo diote Santa Barbaran bertan. 12:30etan meza dago eta 14:00etan bertsolariak emango diote sarrera herri kirolei. Aurturaren bi talde elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak. Urteroko moduan bazkaria ere izango da eta arratsaldean umeentzako jolasak eta toka. San Inazio eguneko bazkarirako txartelak ere salgai daude, Kitto eta Aralarren. □

### IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

### GALDUTAKOAK

Txakur kumea galdu da Osiñaga inguruan. Arratoi txakurra da, marroizta eta arra. Bilatzen duenak deitu 943 580820 telefonora.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru  
Latxunbe Berri 11  
☎ 943 336077
- ▶ Gaez: Iturralde  
Usurbil. Poligono 13, 9  
☎ 943 363395



Tourrean dabilen hernaniar koadrila bat. Ezarriak urratu arte animatu omen zituzten txirrindulariak.

## Hernaniarrak Tourrean

PIRINEOAK Euskaldunak betetzen dira Tourrean eta hernaniarrak ere ez dute hutsik egiten munduko karrerarik gogorenako etapa nagusietan. Astelehenean Luz Ardidenean eta gaur Irati aldean bat baino gehiago dira mailota, ikurriña eta fianbrera hartu eta txirrindulariak animatzera joango direnak. Luz Ardidengo etapan harrapatu ditugun hernaniarrak nabarmen dago zein taldeak diren, asko bezela kolore naranjaz jantzi baitziren, Euskaltel Euskadiko txirrindulariei indarra eman nahian-edo.

Euskaldunak saiatu ziren, baina, azkenean Armstrong estatubatuarrek bereganatu zuen etapa. Bukaeran zalantza bat zuten hemendik joandako gehienek: "Beloki karreran izan balitz hain erraz alde egingo al zuen Armstrongen?". □

# Oiana Blanco judoka gazteak botako du gaur festa hasierako txupinazoa

■ Udaletxeko balkoitik irakurriko du festen hasierako pregoia Oiana Blancok eta ondoren txupinazoa botako du, 19:00etan.

■ Umeei zuzendutako eguna da gaurkoa eta Txupinazo Txikia Xabier Herrero, Leire Zubiarrain eta Ainhoa Zubiarrainek botako dute, 12:00etan.

■ Festak gaurtik igandera dira eta egitarau zabala izango da. Jenderik gehien larunbatean espero da, Santa Ana egunean, Foru Plazan.

ASTIGARRAGAN gaur hasiko dira Santioak, arratsaldeko 19:00etan Oiana Blancok txupinazoa botata. Oiana Blanco judoka gaztea maila oso ona ematen ari da eta ibilbide hori medio aurtengo Santio festei hasiera emateko ohorea izango du.

Gaur umeentzako ekitaldiak dira gehienak, gainerako jendeak lan eguna baitu, eta beren festa hasiera egingo dute txikienek ere: eguerdiko 12:00-etan Txupinazo Txikia izango da Foru Plazan, Xauxar aisialdi taldeak antolatuta. Xabier Herrero Alkatearen papera egingo du, Leire Zubiarrainek Alkatearen emaztearena eta Ainhoa Zubiarrainek irakurriko du pregoia. Horrez gain, haurrentzako bazkaria, pailazoak, txokolatada eta buruhandiak izango dituzte gazteenek, eta ilunabarrean Trakets taldearekin dantzaldia, aurten inoiz baino goizago.

## Bihar, gazteen eguna

Bihar gazteentzako antolatutako ekitaldiak dira nagusi. Arratsaldean, abentura kirolak daude, adrenalina gustatzen zaienentzat eta gazte jaia

Gaztelekuan. Sokamuturra ilunabarrean pasa dute, denak parte hartzeko moduko orduan izan dadin eta gauerdian Santio ermitako kanpaiak joko dituzte gazteek, Santio eguna dela inork ez ahazteko.

## Antzerki eta ikuskizunak

Aurtengo Santioetan antzerki eta antzeko ikuskizun asko daude, edade desberdinetako jendearentzat. Bihar, osteguna, Gaitzerdi antzerki taldeak gorputz mogimendua, soinua eta sua, ura eta hondarra erabiliko ditu jendea erakartzeko. Ostiralean, Hortzmuga antzerki taldeak haur eta familientzat oesteko bakero pelikula filmatuko du. Larunbatean, kale antzerkia dago eta kontua da Kalez Kale taldekoak zanga bat irekiko dutela Astigarragako kale nagusi batean. Igandean umeentzako antzerki eta mimoa izango da La Mascara taldearen eskutik.

Jaiak iraungo duen bost egunetan asko dago ikusi eta gozatzeko Astigarragan aurtengo Santiotan ere, eta festarako gogoia duenak izango du non enplegatua. □



Idi demetan jendea erruz bildu zen iaz, urtero bezalaxe.

## SANTIOTAKO EGITARAUA

### UZTAILAK 23, ASTEAZKENA

- 12:00 Txupinazo txikia, Foru Plazan.
- 14:00 Haurrentzako bazkaria, Foru Plazan.
- 17:00 *Arturrello Di Popolo Pailazoaren Bizikleta* ikuskizuna, Foru Plazan.
- 18:00 Txokolate jana, Foru Plazan.
- 19:00 Jaieen hasiera. Oiana Blancok irakurriko du pregoia eta txupinazoa botako du Udaletxetik.
- 19:00 Buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulariekin.
- 19:45 Areto futboleko finala kiroldegian.
- 20:00 Dantzaldia *Trakets* taldearekin Joseba Barandiaran Plazan.

### UZTAILAK 24, OSTEGUNA

- 11:00etatik aurrera haurrentzako parkea eta Txutxu Trena, Joseba Barandiaran Plazan.
- 17:00 Abentura kirolak, Goiko Iturrin jarritako plataformatik jaitsitako tirolina, eurobungya eta rapela. Apeztegi Plazan.
- 18:00 *Incansables txaranga*.
- 19:00 Gazte-Jaia, gaztelekuan.
- 20:00 Sokamuturra.
- 21:00 Afarimerienda gaztelekuan.
- 22:30 *Gaitzerdi Teatro* taldearen *Naiz* ikuskizuna Foru Plazan.
- 00:00 Santiago ermitako *Kanpai-Errepika* gaztelekuko gazteen eskutik.
- 00:30 Rock kontzertua *Kaotiko* eta *Surfing Caos* taldeekin, Joseba Barandiaran Plazan.

### UZTAILAK 25, OSTIRALA

- 07:30 Aulki-jokoa eta txokolate jana dultzaineroek alaitatuta, Foru Plazan.
- 09:30 Astigarragako Txistularien diana.
- 11:00 Meza Nagusia, Santiago Ermitan.
- 12:00 Dixie Kalejira
- 12:00 XII. Santiagomendiko Kronoeskalada.
- 13:30 Kronoeskaladaren sari-banaketa, Joseba Barandiaran Plazan.
- 18:00 Astigar taldearen dantza-erakustaldia, pilotalekuan.
- 19:00 *Garibaldi Mariatxiaren* kalejira.

19:30 *Hortzmuga Teatro* taldearen *Klaketa* ikuskizuna, Apeztegi Plazan.

23:30 *Larraindantza* herrikoia Foru Plazan.

00:00 *Diskofesta*, Joseba Barandiaran Plazan.

### UZTAILAK 26, LARUNBATA

- 10:00 Iturengo Zanpantzararak.
- 11:30 Artisautza erakusketa, Foru Plazan.
- 11:30 Sagardo dastaketa, Foru Plazan.
- 12:00 Idi-dema, Foru Plazan.
- 12:00 Gorringo taldearen *Tristek* Kontsolatzeko Marmita ikuskizuna. Apeztegi Plazan.
- 13:00 Jesus M<sup>a</sup> Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak, Foru Plazan.
- 14:30 Gazteen bertso-bazkaria Tomas Alba Kalean.
- 17:30 Astigarragako I. Kros Herrikoien irteera Kale Nagusitik.
- 18:00 Zuhaitz Taldearen eskulan erakusketa.
- 18:00 *Aire Aire* trikitixarekin kalejira.
- 18:30 Herri kirolak. Aizkolariak eta auzoen arteko herri kirol desafioa.
- 19:30 *Kalez Kale* taldearen *Zanga* kaleko antzerkia Kale Nagusian.
- 20:30 Egan taldearekin dantzaldia Joseba Barandiaran Plazan.
- 00:00 *Oria Txarangaren* irteera.

### UZTAILAK 27, IGANDEA

- 07:30 Sokamuturra.
- 09:30 Txistularien Diana.
- 10:00 Iker Ruizen Oroimenezko III. Saskibaloia Txapelketa Herrikoia, kiroldegian.
- 11:30 Toka txapelketa
- 13:00 Danbolinzahar taldearen emanaldia, Joseba Barandiaran Enparantzan.
- 17:00 eskupelota jaialdia.
- 18:00 *Patxaranga Txaranga*.
- 19:00 La Mascara antzerkia, Apeztegi Plazan.
- 19:00 Iker Ruizen Oroimenezko III. Saskibaloia Txapelketa Herrikoien finala, kiroldegian.
- 23:00 Piroteknia Zaragozanako su artifizialak.
- 23:15 Zenezuzkoa Joseba Barandiaran Plazan.
- 23:15 Patxaranga Txarangaren irteera.



**Santio festak dira Astiarrak** parrandarako giro ezin hobekua gero indar berritzeko badira lekuak

**KIZKI** In pronto dauzkazu edari frexkuak, bokata goxoenak eta oilaskuak.

**KIZKI TABERNA**  
Kale Nagusia 29 - 943 33 06 47  
ASTIGARRAGA  
Ondo pasa, Santio festak!

<p><b>Uztailak 24</b></p>  <p><b>GAITZERDI</b>ren <b>NAIZ</b> ikuskizuna Foru Plazan 22:30etan</p>	<p><b>Uztailak 24</b></p>  <p><b>ROCK</b> kontzertua <b>KAOTIKO</b> eta <b>SURFING CAOS</b> J.Barandiaran plazan 24:00etan</p>	<p><b>Uztailak 25</b></p>  <p><b>DISKO FESTA</b> Joseina Etxeberria J.Barandiaran plazan 22:30etan</p>	<p><b>Uztailak 26</b></p>  <p><b>KALEZ KALE</b> ren <b>ZANGA</b> kale antzerkia 22:30etan</p>
<p><b>Astigarragako Udala</b></p>			
<p>Santio jai zoriontzua! opa dizkizuegu! Etorri festara eta ondo pasa.</p>			

## “Ez dut judotik bizi nahi, niretzat judoa afizioa da”

■ Oiana Blancok, Ergobiko 20 urteko judokak, emango die gaur festei hasiera ■ Iazko eta aurtengo Portugaleko nazioarteko txapelketan lehenengoa izan zen.

OIANA Blancok botako du gaur Astigarragako festei hasiera emango dien txupinazoa. Azkeneko urteetan fin aritu da nazioarteko hainbat judo txapelketetan eta errekonozimendu giza herriko festak berak hasiko ditu aurtun. Orion jaioa da baina betidanik Ergobin bizi izan da, 4 urte zituenean hasi zen judoan eta 16 urterekin lortu zuen gerriko beltza. Magisteritzako ikasketak eta judoa eginez pasatzen ditu bere bizitzako ordurik gehienak.

### ■ HERNANIKO KRONIKA: Noiz hasi zinen judoan?

OIANA BLANCO: Lau urterekin hasi nintzen judoa egiten. Nire ahizpa judoan zebilen eta bera ikustera joaten nintzen, gainera nire klasekoak apuntatu egin ziren eta ni ere animatu egin nintzen.

### ■ Eta zer da judoaz hainbeste gustatzen zaizuna 16 urtez irauteko?

Gustokoa izan behar duzu hainbeste urtetan jarraitzeko. Hasieran jolas bat zen niretzat eta gero, 13 urterekin, Espainiako txapelketara joan eta bigarrena geratu nintzen. Orduan pentsatu nuen serioago hasiko nintzela entrenatzen. Gainera jendeak egiten dudanarengatik interesa erakusten du

eta horrek ere asko animatzen nau.

### ■ Denbora asko ematen duzu entrenatzen?

Orain bai, astean hirutan goiz eta arratsaldean entrenatzen dut, eta arratsaldean eguneroko. Goizetan entrenamendu fisikoa izaten da eta arratsaldean judoa egiten dut.

### ■ Zein sari garrantzitsu irabazi dituzu?

Iazko azaroan 5garrena izan nintzen Europako txapelketan, junior mailan. Iazko Portugalgo nazioarteko judo txapelketa irabazi nuen junior mailan eta aurtengoa ere bai, baina, senior mailan.

### ■ Ze sentitzen duzu txupinazoa eta pregoia botatzeko aukeratu zaituztela jakinda?

Erabat harrিতuta geratu nintzen, udaletxeko balkoira joan behar nuela esan zidatenean, eta bertatik festei hasiera eman behar niela. Sekulako lotsa ematen dit, jende aurrean hitz egin behar dudalako.

### ■ Zer esango duzu gaur udaletxeko balkoitik?

Urte guztia itxoitzen egon eta gero jaiak iritsi direla eta aprobetxatzeko, ondo pasatzeko segituan bukatzen dira-eta.

### ■ Santiotan zer egingo duzu parranda ala judoa?

Parrandarik ez dut egingo, hilaibete honen bukaeran Pontevedrara bainoia Espainiako selekzioarekin eta goiz eta arratsaldean entrenatzen ariko naiz. □



Oiana Blancok udara txapelketetarako entrenatzen pasako du.



Astigarragako hainbat gazte Gaztelekuko siloietan bilduta.

## Gaztelekuak hainbat ekintza antolatu ditu Gazteen egunerako

■ Bihar arratsaldetik gualdera arte Gaztelekuan bilduko dira Astigarragako gazte eta hezitzaileak ■ Gauerdian Santioko Ermitako kanpaiak joko dituzte ohitura den bezala.

ASTIGARRAGAKO festetan, bihar gazteen eguna dela-eta Gaztelekukoek ekintza ezberdinak antolatu dituzte arratsaldeko 6:30etatik aurrera. Urte bete da Astigarragako Gaztelekua martxan jarri zela eta 12-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako irteerak, tailerrak, ikastaroak, eta abar antolatzen dituzte bertan lanean aritzen diren hezitzaileek. Gaztelekuko hezitzaile den Oihana Pujolek Gaztelekuko helburuei buruz dio “gazteek beren aisialdia sortzen ikasi behar dute, hori da egiten ditugun ekintzen helburu garrantzitsuenena”.

### Biharko egitaraua

Arratsaldeko 18:00etan urtean zehar Gaztelekuan ibilitako gazteei ironiaz

beteriko saria bereziak emango zaizkie: lokala ondoen zaintzen duenari edota kirolari hoberenari zuzendutako sariak dira. Ondoren, bertako hainbat gaztek *streeptasea* egingo dute eta amaitzean txantxa jolasetan eta disko-festetan dantzan arituko dira arratsaldeko 20:30ak arte. Gaueko 21:00etan afari-merienda izango dute eta afaldu ondoren berriro ere dantzari ekingo diote gaueko 22:30ak arte. Ohiturari jarraituz 24:00etan Santioko Ermitako kanpaiak joko dituzte gazteek. Urtero elkarteren batek egiten du eta aurtun Gaztelekuko kargu geratu da. Bukatzeko Jose Mari Barandiaran Plazan 00:30etan dagoen kontzertura abiatuko dira: *Kaotiko* eta *Surfing Chaos* taldeak joko dute. □

www.kronika.net

kronika

Interneten

**COVIRAN**  
Janari denda  
Santio jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

Tomas Alba 11 - Astigarraga  
Tel.: 943 55 23 67

**EZPELA**  
BELARDENDA

- Elikadura integrala, biologikoa, eta makrobiotikoa (barazki-fruta xestuak)  
- Sendabelarrak, terapia naturalak  
- Kosmetika eta garbitzaile ekologikoak  
- Oinetakoak, liburuak,...

kontsultak

- Naturista *Ondo pasa*  
- Dietista *Santio jaiak!*  
- Estetizista

Kale nagusia 29-30  
Tfnoa: 943 33 11 47 - 20115  
ASTIGARRAGA




Tel. 943 55 49 89 - Kale Nagusia  
20.115 ASTIGARRAGA

**IKATZA TABERNA**

Santio jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

**REZOLA**

Ipintza baserria  
Santio Zeharra



TELEFONOAK  
943 55 66 37  
943 55 27 20  
608 14 33 32

Asteburuetan  
zabalik

Ondo pasa  
Santio festak

**SAGARDOTEGIA**

**MATXA**  
TABERNA - ERRETEGIA



Ondo pasa  
Santio jaiak!

Tfnoa: 943 55 00 38  
Kale Nagusia 40 - ASTIGARRAGA

**Bukoi**

CAFE  
TABERNA

Jai zoriontsuak  
pasa ditzazuela!

Tomas Alba, 2 - Tel.: 943 551204  
20115 ASTIGARRAGA - Gipuzkoa

bukoi@wanadoo.es